

LECIÑANA DE LA OCA

— ARABA / ÁLAVA —

Erriberagoitin, Pobesetik hurbil, dagoen herrixka hau, Gasteiztik 25 kilometrora dago. Horretara errepidez heltzen da Arabako hiriburutik: N-1 errepidea hartu behar da Burgoserako bidean, eta, gero, Argantzunerako irteera. Orduan, A-3322 errepidean aurrera egin eta ezkerretara egin gero A-4342 bidetik. Bihurgune batzuen ostean, eskuintara hartzen da Leziñana Okako sarrera.

Leziñana Okari buruzko lehen aipamena Donemiliagako Reja deritzonoko agirian dator, XI. mendean. Bertan dioenez, *Lizinganiella*, ondoko herrixkoekin batera, Fornelloko barrutiaren parte zen, eta *regga* edo golde-burdina ordaindu behar izaten zion Errioxako monasterio horri.

Gaztelatik Kantauri isurialdeko bidean kokapen estrategikoa zuenez, izaera defentsiboko eraikinak egin zituzten. Horren erakusgarri dira etxe gotortu batzuk eta oraindik ere herrian diren harrisi zatiak.

Para llegar a esta pequeña población situada en la Ribera Alta cerca de Pobes, que dista 25 km de Vitoria-Gasteiz, hay que seguir la N-1 en dirección hacia Burgos, y tomar luego la salida de La Puebla de Arganzón. Se continúa por la carretera A-3322 y se gira a la izquierda por la A-4342. Tras una sucesión de curvas, se toma a la derecha la entrada a Leciñana de la Oca.

La primera referencia documental se encuentra en el documento de la Reja de San Millán de la Cogolla, del siglo XI. *Lizinganiella* pertenecía, junto con otras aldeas próximas, al Alfoz de Fornello, y debía entregar una *regga* al monasterio riojano.

Su ubicación como punto estratégico en el paso de Castilla y la vertiente cantábrica impulsó la construcción de edificios con carácter defensivo, como algunas casas fortificadas o los restos de la muralla, que aún hoy pueden observarse en esta localidad.

Santa Eulalia eliza / Iglesia de Santa Eulalia

ERAIKIN HORI oinplano angeluzuzenaren gainean dago altxatuta. Eliz atari eta sakristia bat ditu fatxada nagusiari itsatsiak, eta horiek biek eliza erromanikoaren jatorrizko bolumena lausotzen dute. Fatxada bereko hargin-lanez egindako harresiaren gainean, adreiluzko kanpai-horma bat dago, hiru arkurekin, kanpai-dorre gisa.

Atari modernoko erdi-puntuko bi arku-multzoen ostean, portada erromaniko nagusia ageri da, gaur egun harriz itxita. Horrek ere erdi-puntuko arkuak ditu. Txarabelduak dira, hiru zutabe estu dituzte ate-zangoetan eta dekorazioa kapitela eta harroinetan.

Ezkerreko arkuek hiru arkibolta dituzte; kanpoko biak moldura segidaz daude apainduta, eta horien bitartean erliebe leuneko zerra-haginen segidak daude. Barruko arkiboltak, berriz, apaingarri jaso konplexuagoa dauka: moldura irregularrak modu mailakatu batean, eta, tarteka, behin eta berriro, hutsuneak sartuta, irudiari nolabaiteko dinamismoa emanik eta ikus-indar handiagoa.

Inposta-lerroaren azpian, tarteka hutsune berberak sartuta bereizitako laukien greka batek markatuta, kapitela ageri dira; landare- eta figurazio-motiboak dituzte.

ESTE EDIFICIO se erige sobre una planta rectangular. Tiene un gran pórtico y una sacristía adosados en la fachada principal, que desvirtúan el volumen original de la iglesia románica. Sobre el muro de mampostería de la misma fachada, se alza una gran espadaña de ladrillo, con tres arcos a modo de campanario.

Tras las dos arcadas de medio punto del pórtico moderno, encontramos la portada románica principal, hoy tapiada, formada por otras dos arcadas también de medio punto. Son abocinadas, con tres estrechas columnas en las jambas y con decoración en los capiteles y en las basas.

La arcada de la izquierda tiene tres arquivoltas, siendo la decoración de las dos externas a base de molduras corridas, y entre ellas una serie de dientes de sierra de poco relieve. La decoración de la arquivolta interna es más compleja, ya que tiene unas molduras irregulares de forma escalonada, que se alternan con huecos que se suceden de forma repetitiva, creando cierto dinamismo y dotándola de más fuerza visual.

Bajo la línea de imposta, marcada por una greca de cuadrados separados por espacios uniformes, se presentan



Elizpearen barrualdea

Interior del pórtico



Portada erromanikoa

Portada románica

Portada erromanikoa.
Kapitelak

Portada románica.
Capiteles



Portada erromanikoa.
Harroinak

Portada románica.
Basas



Kanpoko zutabeek landare-gaiak dituzte apaingarrietan, oso fin landuta eta erliebe gutxirekin; gainerako kapituletan, ostera, maskaroiak daude: munstro-aurpegiak dira, aho eta begi handiekin. Oso adierazgarriak, beraz.

Zutabeak lauak dira, eta harroinek apaindura geometrikoa dute. Oso bakunak izan arren, malgutasuna ematen diote multzoari. Agerikoa da harroin horiek antz handia izatea Villaluengako Santa Justa eta Rufina eliza erromanikoko leihoko kapitel eta harroinen dekorazioarekin: motibo berbera darabilte biek, baina honako hau baldarragoa da. Lerro landuko triangeluak dira, oinarri erdi-zirkularra dute barrurantz landua, eta horrek bolumena ematen dio. Zutabeak plinto batzuen gainean daude, baina behera iritsi gabe.

Beste arkuak hondatuta daude; ezkerreko zutabeak galdu egin dira, eta gaur egun arte bat baino ez da iritsi osorik. Horren kapitela eta apaindura aurrekoena bezalakoa da: landare-gaiekin. Azkenik, portada ixteko, arkibolta bakarra du, moldura jarraitua eta zerra-hagindun motibo txikiak.

Tamalez, eliza hainbat bider berritu izan dute, eta, adibidez, lehenengo arku-multzoaren barrualdea harriz dago estalita, baita beste garai batean eraikitako leiho bat ere, hasieran zeukan funtzioa kenduta. Bigarren arku-multzoa ere itxita dago, leiho angeluzuzen txaranbeldua duen harlanduzko horma bat dauka, eta barruko gezi-leihoak agerian uzten du horma horren zabalera. Leiho txiki horrek ez du batere dekoraziorik.

Eliza horretan nabarmendu daitekeen beste elementu bat barrualdean dago: bataiarria. Altuera gutxiko oinarria du, eta, berorri itsatsita, bost zutabetxo. Ontzi estua eta sakona dela da berorren adierazgarria. Ez du apaingarririk, bazterrean duen lerro-bidezko irudi bat izan ezik.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI

los capiteles, con motivos vegetales y figurativos. Los de las columnas exteriores presentan temática vegetal, trabajada muy finamente y con poco relieve; los otros capiteles están formados por mascarones de rostros monstruosos con grandes ojos y bocas, lo que les hace muy expresivos.

Las columnas son lisas y sus basas tienen una ornamentación geométrica que, pese a su sencillez, les proporcionan elasticidad. Estas basas muestran un paralelismo evidente con la decoración de los capiteles y basas de la ventana románica de la iglesia de Santa Justa y Rufina de Villaluenga, que presenta el mismo motivo ornamental, pero más tosco. Se trata de triángulos con líneas talladas y una base semicircular rehundida hacia el interior, que le da cierto volumen. Las columnas apoyan sobre unos plintos sin llegar hasta el suelo.

La otra arcada no se ha conservado completa, ya que se han perdido las columnas de la izquierda y solamente ha llegado a nuestros días una columna cuyo capitel repite decoración y talla con el de temática vegetal de la arcada descrita anteriormente. Una sola arquivolta, de moldura corrida y pequeños motivos de dientes de sierra, cierra esta portada.

Lamentablemente la iglesia ha sufrido gran número de reformas, por lo que encontramos el interior de la primera de las arcadas tapiada con mampostería, y también una ventana perteneciente a otra etapa constructiva, que ha perdido su función original. La segunda arcada, también cegada, conserva un muro de sillares con una ventana rectangular con abocinamiento y saetera en su interior, que nos permite observar la anchura de los muros. Este pequeño vano no tiene ninguna decoración.

Otro elemento destacable de esta iglesia lo encontramos en su interior. Se trata de una pila bautismal, a cuya base cilíndrica de poca altura se le adosan cinco columnillas. Una característica peculiar de la misma es la estrechez y profundidad de la copa. Carece de ornamentación, exceptuando un dibujo lineal en el borde.

Texto y fotos: JCE/MLAI

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 122; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 259; MARTÍNEZ-TORRES, L. M., 2004, p. 103, fig. 126.